

AUPA BIZKAIA IRRATIA

1

Bai pozgarria lehengo batean
Boroako jaieguna:
Bizkaia Irratiak hoitabost urtez
eskeini dauan jarduna (bir)

2

Batean kantuz, besteak soinuuz,
sarri han-hemengo barri,
noiznahi meza ta kristau jardunak,
askoren kontsolagarri (bir)

3

Eguneroko Zorionak ta
etenbako barriketa,
hori entzuten dagozan askok
dinoe: "Hori dok eta!".

4

Esaera zahar, ipuin, kontuak
danetik on ta ugari,
nok ete dauko, edo nun batu
danentzako beste sari? (bir)

5

Petra ta Pilar, Txomin ta Pirras
gitxi ikasitakoak,
baina munduan asko bizi ta
asko ikusitakoak (bir)

6

Txalogarria Bizkaian dogun
euskal herri irratia,
herri-eskola bihurtu jaku
gozoa eta alaia (bir)

7

Herri ta Eleiz biak batera
hau da sorrerako nahia,
bere jarreraz, bere jardunez
Bizkaiko Eleiz kanpaia (bir)

8

Aitita-amama guzien partez
gure Pantxikek emonak,
Bizian Gora barruko dala
bihotzetik Zorionak (bir)

9

Bilboko gotzain, alkate eta
Ahaldundiko partaideak,
Boroan danok sentidu ginan
Irratiko senideak (bir)

10

Urte askotan ekin ta jarrai
ta atera zaratia,
aho ta bihotz batez guztiok:
AUPA BIZKAIA IRRATIA!!! (bir)

A. Martzel